

AITONAREN ENKARGUA

Amaia Osa

Donostia, 16 urte

Garai batean, Amaia, dirudunena zen mundua,
beraienak ziren profetak, santuak
eta luzaroan irauteko itxaropena
eta beraien neurrira eginiko
ustezko jainkoa.

Alabaina, Amaia, zuk bidea egina duzunean,
atsegingo nuke jakitea, nonbait banago bederen,
nagokeen tokian,
urrats berria ireki duzula
eta bukatu zaiela behartsuei
lokatzezko xendari ekin beharra.

Garai batean, Amaia, maltzurrena zen bidea,
iruzurra ostadarraren kolorez margotzen zutenena.
Burtsan kotizatzen zituzten pasarelako panpinen
neurriak,
kale kantoietako galtzaileen malkoak.
Alabaina, Amaia, zuk bidaia egina duzunean,
atsegingo nuke jakitea, nonbait banago bederen,
nagokeen tokian,
erasotuei eman zenuela eskua
eta zure ezpainek ez zutela erreparorik izan
irainduak laztantzeko orduan.

Garai batean, Amaia, geneukanaren arabera neur-
tzen gintuzten
eta milioi bat aldiz petsona izan zintezkeen
baldin eta milioiak bazeneuzkan,
zango trabaren erreinuan.
Alabaina, Amaia, zuk bidea egina duzunean,
atsegingo nuke jakitea, nonbait banago bederen,
nengokeen tokian,
bihotzez aratzen alde bota duzula erronka,
eta izanaren arnasaz lurrundu duzula
pertonaren definiziorako ispilua.

Garai batean, Amaia, metrailetaren orroa
lehertarazten zuenarena zen kalea,
zuritasuna urrez janzten zuenarena
paperaren eta pantailaren espazioa,
mass mediaren magnateena
digitalaren indarkeria urdina.
Alabaina, Amaia, zuk bidaia egina duzunean,
atsegingo nuke jakitea, nonbait banago bederen,
nengokeen tokian,
bakearen printzesa izan zarela
eta ahotsik gabeei eman diezula
euren hitzak krabelinez hornitzeko
eskubidea, Amaia nirea.